

BIGARREN HIZKUNTZA ESKAKIZUNA

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren B2 maila

IDATZIZKO AZTERKETA

[A eredua]

- Idatzizko azterketak **bi proba** ditu: irakurmena eta idazmena.
- **2h 5 min** dituzu azterketa egiteko.

	PROBEN EZAUGARRIAK	AURREIKUSITAKO DENBORA	PUNTUAZIOA (GEHIENEZ)	PUNTUAZIOA (GUTXIENEZ)
IRAKURMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> Hiru ariketa dauzka. Hirurak egin behar dira. Hiru irakurgai eta guztira 34 item. Lehenengo eta bigarren ariketetan item bakoitzak 0,8 puntu balio du eta hirugarrenean 0,4 puntu. Txarto erantzuteagatik ez da punturik kenduko. Testuen luzera guztira: 1.500 hitz gehienez. 	50 min	20	10
IDAZMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> Bi ariketa ditu. Biak balio berekoak (15 puntu). Biak egin behar dira eta eskatutako hitz kopurua bete. Eskatutako hitz kopurua ez idazteagatik puntuak kenduko dira. 	75 min	30	15

- **Irakurri** atal bakoitzean datozen **argibideak** eta egizu bertan jartzen duena.
- Egin **idazmen-probako ariketak** horretarako eman zaizkizun **aparteko orrietan**.
- Azterketa-**koaderno hau** ez da jasoko, **zuzetzat da**.

1. ariketa

Ondoren testu bat daukazu. Irakurri eta erantzun galderai.

Aukeratu erantzuna. Bakarra da zuzena.

HERRIALDERIK ZORIONTSUENAK

Costa Rica agerida berriz herrialde zoriontsuenen sailkapeneko lehen postuan, eta inguruko beste herrialde batzuk ere lehenengo hamar postuetan daude. Aberatsenak aurkitzeko, berriz, zerrendan behera egin behar da. Begiraleek berehala ondorioztatu dute ingurumena gehien zaintzen dutenak bizi direla zoriontsuen.

NEF (New Economics Foundation) erakundeak beste urrats bat eman du munduaren funtzionamendurako beste bide batzuk topatzeko eta aplikatzeko, betiere ekonomiaren analisiaren eta estrategia berrien bitartez. Irtenbide praktikoak aurkitu eta bultzatu nahi ditu, eta horretarako herrialdeak sailkatzen ditu, Planetaren Zoriontasunaren Indizearen arabera.

NEFen parte hartzen duten Britainia Handiko ekonomialarien helburua da Mendebaldeko gaur egungo bizimodua eutsiezina dela azaltzea. NEFen ustez, Mendebaldearen erronka ez litzateke izan beharko diru-sarrerak gehitzea, beste helburu batzuk izan beharko lituzke, ondasunen pilaketa eta etengabeko lehia alde batera utzita. Beraz, kontsumismo basatian erori gabe ere, zoriontsu izan daitekeela frogatu nahi izan dute. Posible da bizimodu ona izatea planeta txikitu gabe. Amets amerikarraren aurrean, haren antitesiarri begiratzea besterik ez dago. Izan ere, askoren harridurarako, Kuba ipini dute munduko estaturik zoriontsuen artean, zazpigarren lekuan, Estatu Batuak baino 136 postu aurrerago.

NEFek hiru faktore hartzen ditu kontuan sailkapena egiteko. Alde batetik, estatu bateko herritarren bizi-itxaropena. Bestetik, norbanakoen poztasuna. Azkenik, bakoitzaren bizimoduak Lurrari eragiten dion kostua edo kaltea. Hau da, luze eta ongi bizitzeko herrialde bateko kide guztiek baliabideak nola erabiltzen dituzten azaltzen saiatu da NEF erakundeak. Oso garbi daukate luxuz betetako gizarteak ez direla iraunkorrak, ez daudela guztion esku eta ez dutela denon zoriontasuna bermatzen.

Europako makina bat estatutan azken bolada honetan gertatzen ari denari begiratzea besterik ez dago.

Hala ere, gauza bat da NEFeko adituek azterlan bat egin izana, eta beste bat, oso bestelakoa, munduko agintariak lan hori kontuan hartzea. Horren harira, Britainia Handiko Gobernuak oso eraginkorra gerta daitekeen urratsa eman berri du: salneurria jarri dio bere ingurumenari. Izan ere, gure gizarte honek letra handitan idatzitako salneurria ikusten ez badu, ez dio ezertxori ere baliorik onartzen. Beraz, baso bati zenbait milioi euroko salneurria ipintzen badiogu, kaltetuz gero, zenbat ordaindu beharko genukeen jakingo dugu. Era berean, agintari britainiarrek eskatutako txosten baten arabera, jakinarazi dute parke baten ondoan bizitzeak urtero 400 euroko onura eragiten duela pertsonako. Britainia Handiko Gobernuak azaldu du txostenetako datuak kontuan hartuko dituela hirietako eta landa-inguruetako plangintza prestatzeko garaian. Txostenaren egileen arabera, horixe da garrantzitsua, benetako onurak eta kalteak kontuan hartzea, garapen moduan aurkezten den edozein proposamenen aurrean: «Eremu berdeek etxebizitzaren balioan ez ezik, pertsonen buruko osasunean ere eragiten dute».

Estatu batzuek basoen edo ibaien balio ekonomikoa ebaluatzeko kalkuluak eman dituzte eta TEEB (The Economics of Ecosystems and Biodiversity) bezalako testuek ere bide beretik eman dituzte urratsak, baina badirudi Britainia Handiko Gobernuak harago iristeko prest dagoela.

<GAUR 8.info>. Egokitua

1. ariketa. Aukeratu erantzuna

1. Zer hausnarketa egin dute begiraleek?

- a) Herrialde aberatsenak zoriontsuenak direla.
- b) Ingurumenaz arduratzeko zoriontsu bizi behar dela.
- c) Ingurumenaz gehien arduratzen diren herriak direla zoriontsuenak.

2. Zer helburu du NEF erakundeak munduaren funtzionamenduari begira?

- a) Beste irtenbide batzuk lortzea.
- b) Ekonomiaren analisisa egitea.
- c) Orain arteko estrategiak aplikatzea.

3. Zein da egileen ustez Mendebaldearen erronka?

- a) Ondasunak pilatzen jarraitzea.
- b) Orain arteko helburuak aldatzea.
- c) Pertsonen diru-sarrerak hobetzea.

4. Zer dio NEF erakundeak gure planetaz?

- a) Planeta errespetatuta, zoriontsuak izan gaitezkeela.
- b) Kuba munduko estaturik zoriontsuena dela.
- c) Amerikarren ereduari jarraitu behar diogula.

5. Zer hartu du kontuan erakundeak sailkapena egiteko?

- a) Herritarren bizi-itxaropena neurtzeko dauden baliabideak.
- b) Gure bizimoduak Lurrari eragiten dion kaltea.
- c) Herrialdeen baliabideak herritarrak luzaro bizitzeko.

6. Zer ari da gertatzen Europan?

- a) Estatu askotan zorientasuna bermatuta dagoela.
- b) Luxua zorientasunari lotuta doala.
- c) Luxu handiko gizarteak ez duela zorientasuna bermatzen.

7. Zer erabaki du Britainia Handiko Gobernuak?

- a) Ez diola garrantzirik emango ingurumenari salneurria jartzeari.
- b) Ingurumenari prezioa jartzea.
- c) Eraginkortasunari balioa jartzea.

8. Zer egingo du Britainia Handiko Gobernuak?

- a) Txostengileen balorazioak kontuan hartu plangintzak prestatzeko.
- b) Etxebizitzaren prezioan eremu berdeek duten eraginaz interesatu.
- c) Kalteez baino ez arduratu.

2. ariketa

Ondorengo testuari zatiak falta zaizkio. Hurrengo orrian dituzu falta diren testu zatiak.
Sartu **testu zatia** dagokion **hutsunean**.
Markatu testuko hutsuneak (9, 10, 11...) betetzeko zein diren galdera egokienak (A, B, C...).

Testu zati bat sobera dago.

ELIKAGAIEN BIZITZA LUZATZEKO

Janaria prestatzeko denbora faltagatik, sobera geratu delako, dirua aurrezteko edo beste hainbat arrazoirengatik, jende askok izozten ditu elikagaiak etxean. Gainera, Krisiarekin tuperretan jateko ohitura handitu egin da eta horrek jakiak izozteko joera handitu egin du.

9

Hasteko, ia elikagai guztiak izoztu daitezke, baina batzuek besteek baino errazago mantentzen dituzte euren ezaugarriak. Kontua da saltsek, arrautzek, entsaladek, pastekek edo hainbat frutak ez dutela testura mantenduko, hau da, ez direla izoztu aurretik bezala egongo.

10

Arrain urdina ere ez da egokia izoztea, atunak, antxoak eta hegaluzeak duten koipea alferrik galtzen baita izoztean. Beste elikagai batzuk, aldiz, oso aproposak dira izozteko: kroketak, muskuiluak, txipiroiak eta olagarroak, kasu.

11

Behin izoztu nahi den produktua aukeratuta, lehenbailehen izozkailuan sartzea da gomendagarriena. Horrez gain, izozketa azkar egin behar da; halaber, ezinbestekoa da izoztu nahi den produktua babestuta egotea, ongi kontserbatzeko. Hutsean ontziratuta jarri daiteke edota tuperretan sartuta, adibidez; hotzetik ongi babestuta egotea ezinbestekoa da. Ongi zabaldua jarri behar da dena ontziaren barruan, hotza jakiaren leku guztietara iristeko.

13

Horretarako izarrak erabiltzen dituzte. Izar batekoek ez dute izozteko balio, bi izarrekoek -12 gradu lortzen dituzte eta, beraz, ez dute gomendatzen tresna horietan epe luzera

begira izoztea. Hiru izarrekoek -18 eta -24 gradu artera iristen dira eta, ondorioz, horiek dira egokienak izozteko. Hiru izarreko izozkailuetan hiru hilabetez egon daitezke elikagai koipetsuak izoztuta. Elikagai gatzgabeek sei hilabetera arte irauten dute; epe horretatik aurrera lehortzen dira eta inguruan dituzten elikagaien edo izotzaren zaporea hartzen dute.

Epeak ongi kontrolatzeko ezinbestekoa da ontzi bakoitza ongi izendatu eta izoztu den eguna idatzita uztea. Iozkailua ongi mantendu behar dela gaineratzen dute adituek, garbi eta barruan dagoena ordenatuta. Gainera, denbora gehiegi irekita izatea ez da ona.

14

Desizoztea da bigarren urratsa eta garrantzitsua da ongi egitea. Modu batzuk daude desizozteko. Horietako bat hozkailuan sartzea da eta horixe gomendatzen dute adituek, baina denbora luzea eskatzen du. Horrez gain, argi izan behar dugu behin izoztu eta desizoztutako elikagai bat ezin dela berriz ere izoztu. Prozesua behin bakarrik egin daiteke.

15

Gaixotasun batzuk saihesteko ere baliagarria da izoztea. Anisaki gaixotasuna da horietako bat; arrain gordinetan egoten den bizkarroi batek sortutako gaixotasuna da anisakia. Ozpinarekin dauden antxoak, adibidez, aurretik izoztea gomendatzen du Osasun Publikoak, arriskurik egon ez dadin.

16

AGUIRRE, Ilargi. Berria. 2015eko apirilaren 11a. Egokitua.

2. ariketa. Aukeratu erantzuna

- A. Izoztutako produktu hauek irabazi egiten dutela esaten dute janariaren inguruko adituek, zuntza puskatu eta samurrago bihurtzen baitira.
- B. Baina zenbat denbora iraun dezake elikagai batek izoztuta? Izozkailuaren arabera izaten da eta, gainera, ekoizleek adierazten dute izozkailuaren izozteko gaitasuna zein den.
- C. Beraz, jaki bat bigarren aldiz izozten dugunean bizkarroiak berpizten ditugu eta Anisakia harrapatzeko posibilitateak askoz handiagoak dira.
- D. Era berean, tomatea edo patatak ere ez dira gomendagarriak izozteko, esaterako, patata belztu egiten delako eta tomateak arazoak ematen dituelako.
- E. Hori egin ezean, ez dugu segurtasunik izango, eta elikagaiak denbora gehiegi izango ditugu izozkailuaren barruan ahaztuta.
- F. Gordinik dagoen arraina janez gero, bizirik dauden parasitoak gorputzean sartu daitezke eta digestio aparailuan geratu.
- G. Baina ongi egiten ari al gara? Elikagai izoztuak kaltetu ez daitezen, gomendio batzuk jarraitzea ezinbestekoa da.
- H. Zenbat eta freskoago egon elikagaia, orduan eta hobeto, gero desizoztean ezaugarriak mantentzeko; horregatik iraungitzear dauden elikagaiak ez dira inola ere izoztu behar.
- I. Txorrota ireki eta ur hotzaz ere desizoztu daiteke, eta mikrouhin-labea da beste aukera bat; kasutan elikagaiak desizoztu eta berehala prestatzea oso garrantzitsua da.

■ Idatzi zenbakiari dagokion letra ondoko laukietan, eta ez ahaztu erantzun-orrira pasatzea:

Hutsuneak	9	10	11	12	13	14	15	16
Testu zatiak								

Soberakoa

Soberako aukera hau ez da jaso behar erantzun-orriran.

3. ariketa

Hutsuneak bete. Testutik zenbait hitz ezabatu ditugu. Erantzun-orrian aukera ezazu zenbaki bakoitzari dagokion hitza.

UDAL BERRIAK

UDAKO DENBORALDIRAKO APARKALEKU EGOKITUA

Sopelako Udalak Urko eta Ugeraga inguruaren berreskuratze-prozesuarekin jarraituko du hurrengo hilabeteotan. Urko paduraren berreskuratze ekologikoaren ondoren, hurrengo **17** Ugeragako aparkalekuari begira emango dira. Udalak aipatutako lekuan udako denboraldian karabanetarako parking bat egingo du. Neguan autoek orain arte bezala erabiltzen jarraitu ahal izango dute; eta udan, **18**, autoek ez ezik, karabanek ere aparkatzeko lekua izango dute.

19, autokarabanek ez dute inolako espaziorik Sopelan eta inguruko herrietan. Udan, asko dira herrira hurbiltzen diren autokarabanak, eta, adibidez, ez dute ur grisak eta beltzak non bota. Udalak **20** horri erantzun nahi dio, gaur egun Uribe Kostan ez baitago inolako **21**, eta aparkaleku horrek mota horretako turismoa bultzatzen dezake. Modu horretan, karabanek herriko beste gune batzuetan sortzen dituzten **22** ekidin nahi dira, haientzako leku apropos bat sortuz. Seinaleak jarriko dira aparkalekua non dagoen erakusteko.

Karabanek aparkalekua udako denboraldian bakarrik erabili ahal izango dute; hau da, ekainetik irailera arte. Beste hilabeteetan, **23** erabiltzaileek aparkalekua erabiltzen jarraitzeko aukera izango dute, 130 auto aparkatzeko aukera baitago.

Aparkalekuak honako **24** eskainiko dizkie bisitariei: edukiontzia, ur edangarria duen iturria, leku garbia (ur gris eta beltzak botatzeko lekua), argiteria eta abar. Guztira, 24 autokarabana aparkatzeko lekua egongo da.

Obrak hasi baino lehen, Udalak hainbat panel informatibo jarriko ditu lanen nondik norakoak **25**. Obrak egiten diren bitartean, erabiltzaileek aparkalekuaren % 70 **26** izango dute beti. Modu horretan, futbol-zelaira joaten diren lagunek aparkatzeko lekua izango dute obra egiten den bitartean.

Proiektu honek 59.000 euroko kostua izango du; kopuru horren erdia argiak **27** eta aldatzera bideratuko da, herriko beste hainbat lekutan egin den bezala.

sopelaudala.org. Egokitua.

IGOGAILU BERRIA

Sopelako herrigunea eta Larrabasterra **28** egongo dira aurrerantzean, Sopelako Udalak Iberreko igogailu berria inauguratu ondoren. Igogailua estrategikoa da eta azken urteetan auzokideek etengabe eskatu eta **29** duten proiektua da, batez ere Iberre inguruko auzokideek.

Igogailua Iberre Institutuaren alboan eraiki da, eta Larrabasterra eta Sopelako herrigunea banatzen dituen **30** leuntzen lagunduko du. Gainera, igogailutik metro eskas batzuetara Osasun Zentroa eta Nagusien Etxea dago; eta, beraz, bertako erabiltzaileak **31** heldu ahal izango dira Larrabasterratik.

Sopelako Udal Gobernuarentzat, igogailuaren proiektua beharrezkoa eta ezinbestekoa da, inguru horretako **32** eta irisgarritasuna hobetuko duelako. Helburu horrekin, gainera, igogailuaren inguruan ere **33** egin dira (espaloietan, igogailura heltzeko bidean...), irisgarritasuna eta erabilgarritasuna hobetzeko.

Igogailuaren **34** 225.840 eurokoa izan da. Panoramikoa da eta erabilera dohainik izango da. Orduz hiru izango du: goizeko 07:00etatik gaueko 23:00ak arte. Bestalde, igogailuan segurtasun-kamerak jarri dira.

sopelaudala.org. Egokitua.

3. ariketa. Aukeratu hutsuneak betetzeko hitz egokia

- 17.a) bideak
b) sarrerak
c) urratsak
d) debekuak

- 18.a) dena den
b) hau da
c) era berean
d) berriz

- 19.a) Gaur egun
b) Oraintsu
c) Gaurkoz
d) Halako batean

- 20.a) abantaila
b) gabezia
c) aukera
d) huskeria

- 21.a) eskaintzarik
b) arriskurik
c) bezerorik
d) onurarik

- 22.a) aldaketak
b) erasoak
c) arazoak
d) zauriak

- 23.a) ondoko
b) ohiko
c) pareko
d) erabateko

- 24.a) eskaerak
b) zerbitzuak
c) laguntzak
d) beharrak

- 25.a) geldiarazteko
b) desagerrarazteko
c) betearazteko
d) ezagutarazteko

- 26.a) erabilgarri
b) lagungarri
c) osagarri
d) susmagarri

- 27.a) indartzera
b) itzaltzera
c) itzultzera
d) berritzera

- 28.a) mugatuago
b) gertuago
c) garbiago
d) biziago

- 29.a) aldarrikatu
b) menderatu
c) banatu
d) mespretxatu

- 30.a) jauzia
b) aldapa
c) pasarte
d) estualdia

- 31.a) jatorrago
b) estuago
c) errazago
d) bigunago

- 32.a) lehentasuna
b) gaitasuna
c) mugikortasuna
d) laguntasuna

- 33.a) egonaldiak
b) harrerak
c) lanak
d) ibilbideak

- 34.a) aurrekontua
b) prestaketa
c) ordainagiria
d) premia

Oharrak

- Ondoren, **bi ariketa** dituzu. **Biak egin behar dituzu.**
- Oso kontuan hartu behar dituzu gaia eta eskatzen zaizun ariketa mota.
- Garbi idatzi eta saiatu letra argia egiten: **ez da zuzenduko irakurri ezin denik.**
- Erabili boligrafoa idazteko.
- Ez jarri zure izen-abizenik; **asmatu izenpea anonimotasuna bermatzeko.**
- Zuzentzeko orduan, hauexek hartuko dira kontuan:
 - Eskatutako guztiari erantzun diozun.
 - Ideiak garbi adierazi dituzun.
 - Euskara nola erabili duzun: egokitasuna, zuzentasuna eta aberastasuna.

**ZIRRIBORROAK EGITEKO LEKUA ONDORENGO ORRIETAN DAUKAZU.
EGIN ARIKETAK HORRETARAKO EMAN ZAIZKIZUN APARTEKO ORRIETAN.**

1. ariketa

Gaia kontuan hartu eta **eskutitza** idatzi behar duzu.

Gutxienez 125 hitz idatzi behar dituzu.

GAIA: Administrazioako langilea zara. Gaixorik egon zara sei hilabetez, eta lanera itzuli zarenean zure lana beste lankide batek betetzen duela ikusi duzu. Etorri zarenetik hara eta hona zabilta hutsune guztiak betetzen.

Idatz iezaiozu eskutitza arduradunari zure egoeraren berri emateko eta konponbidea proposatzeko eta eskatzeko.

2. ariketa

Gaia kontuan hartuta, iritzia eman behar duzu herriko aldikarian, *Herritarren txokoa* sailean.

Gutxienez 125 hitz idatzi behar dituzu.

GAIA: Herrian etxebizitzak eraikitzeko leku gutxi dago eta herritar ugari alde egin dute ondoko udalerrietara. Udalak, hori ekiditeko, XIX. mendeko auzoa zaharberritu beharrean, botatzea eta bertan babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzea erabaki du. Herritar guztiak ez dute begi onez ikusten Udalaren erabakia, herriaren historia zati bat galduko baita.

Zuk, gaiaren garrantziaz jabetuta, herriko aldikarian iritzia ematea erabaki duzu.

Zirriborroetarako lekua

Zirriborroetarako lekua

IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

- **1. ariketa:** aukeratu erantzuna.
- **Irakurgaia:** «HERRIALDERIK ZORIONTSUENAK»

1.	C	2.	A	3.	B
4.	A	5.	B	6.	C
7.	B	8.	A		

- **2. ariketa:** sartu testu zatia dagokion hutsunean.
- **Irakurgaia:** «ELIKAGAIEN BIZITZA LUZATZEKO»

Hutsuneak	9	10	11	12	13	14	15	16
Testu zatiak	G	D	A	H	B	E	I	F

Soberakoa	C
-----------	---

- **3. ariketa:** hutsuneak bete.
- **Irakurgaia:** «SOPELAKO UDAL BERRIAK»

17.	C	18.	D	19.	A
20.	B	21.	A	22.	C
23.	B	24.	B	25.	D
26.	A	27.	D	28.	B
29.	A	30.	B	31.	C
32.	C	33.	C	34.	A